

# Harkaitz Cano

## «Birik bat egitea egitea bezala da»

ken finean, hilda dago eta ez du aukerarik izango bere kabuz hilkutzatik atera eta lur azalera irteteko. Orduan, besteok atera behar dugu. Sex Pistolskoek, ordea, lehenik hil egin behar lukete gero berreskuratuak izateko. Ez naiz desagertu eta handik hamar urtera berriro biltzen direnen batere zalea. Hori hemendik hamar urtera Lubaki itzultzea bezala litzateke: tamalgarria. Gauzak oso ondo egoten dira bere horretan, neurri batean eternitatea dastatuz. Sex Pistols-en disko zaharrak oso ondo daude baina orain itzultzeak ez du inolako interesik.

### ■ Zein musika talde dituzu gustukoaren azken aldian?


Nik beti errebindikatu izan dut nesken aho-tsak falta direla euskal musikan. Honela, Kashbad eta, euskaldunak izan ez arren, We-mean dabilzkit buruan orain. Ermuko Dantzut ere gogokoa dut. Gero, jadanik handi diren Dut, Ruper Ordorika eta Negu Gorriak aipatuko nituzke. Baina musika ikaragarri gustatzen zait eta boladak izaten ditut. Musika asko eta ezberdina entzuten dut.

### ■ Negu Gorriak-en abestietatik ez al daude urrun samar zure poemak?

Urrun? Ez nuke esango. Orain, nire poemak zailak dira kantatzeko. Nik uste gehiago direla irakurtzeko kantatzeko baino. Poema luzeak dira ohiki nireak, eta beraz erritmoa hartzeko irregularrak. Ez zaizkit iruditzen musikatzeko errazak, ez. Baina filosofia aldetik ez dut uste urrun dabilzkanik Negu Gorriak-en abestietatik. Egia esan, beharrezkoa iruditzen zait idazleen eta musikarien arteko elkarlana.

### ■ Non jarriko zenue barrikada bat?

Une hauetan kendu egingo nituzke. Bada kantutik mugak gudan daude dioena eta, barrikadak mugak badira, kendu egin beharko lirake. Oso



ANDER GILLENENA

zentzu filosofikoan ari naiz hitz egiten baina, bai, mugarik nahi ez badugu, ez genuke barrikadarik jarri beharko. Bai, inkomunikazio asko dago eta barrikadak kendu beharrekoak dira.

### ■ Zure lehen nobela honetan nabari al da idazleren baten eragina?

Bai. Liburu honetan, esaterako, Malcom Lowry. Honen *Lunar Caustic* irakurri dut eta eroetxe bate-

ko gora-beherak ezagutzera ematen dituenek, nobelaren giroa sortzeko baliagarria izan zait. Gero, biografiak ere irakurri ditut eta baita musika asko entzun ere. Jazza batik bat. Bai, erreferentzia asko agertzen dira nobela osoan zehar.

### ■ Aukeratu beharreko hiri bat?

Herria izanez gero Hondarribia erantzungo nuke, baina hiria... ez dakit. Oraindik ezagutzen ez dudana bat aukeratuko nuke. Ezagutzen dituzun gauzak eta gertukoak egiten zaizkizunak gero eta gorrotagarriagoak bihurtzeko arriskua baitago.

### ■ Idazteko ez al zenuke nahiago Donostia aldean mendi aldeko herri lasairen bat?

Bolada batean hobe nituzke Londres eta New York pixka bat itotzeko eta, gero, kontraste bezala Zeraín eta Aia. Oso urbanoa naiz. Buru-belarri nobela bat idazteko primerakoa litzateke *walkmana*, ordenadore portatila eta beharrezko materiala hartu eta Aia aldera joatea, baina nik ezingo nituzke pasatu 365 egun bertan.

### ■ Askok idatzi izan duzu suizidioari buruz. Burutik pasatu al zaizu inoiz suizidatzea?

Ez. Ni pesimista naizelako. Optimistak bakarrik suizidatzen dira. Pesimistak, bizitzeko arrazoirik ezean, zertarako eduki behar dute hiltzeko arrazoi bat? Bizitzeko arrazoirik ez badute, nola izango dute bada hiltzekoa?

## Kaio baten jaiotza erratua

Kaio jaiotze behar zuen Harkaitzek baina euria bota eta bota baziren mila tristura mota, poeta jaiotze balinbatte. Kearen bestaldetik heldu zitzaizkigun bere lehen seinaleak, bertsiio ofizialean sinatuak. Lehenago, ordea, ezagutu genituen batzuek bere hitzak eta bizitzak. Lisboa-ko arratsetan izan genuen elkarren berri, espaloietan *um vento muito leve*, Lizardiaren bila Rimbaud etortzen zenekotan baino askoz lehenago. Gu ere marinela ginenean. Gero jakin genuen, hurrengo bizitzan esnatzean, malko bat dagoela

poema bakoitzean. Odol tanta bat. Paris-ko hotelak erre genituen, Ordorika autobusera kondenatu eta Amsterdamgo zubietan ahaztu bihotzak. Poeta gazteak ginenean eta beste. Italiako hondartzetan lehen manifestuak erre genituen eta kaiola bana eskuan, karioletan gorde lekuko bakarra: kea. Hire liburuak gazteon kaiolak.

Gero, literaturaren lubakietan zauritu gintuzten elkarrekin. Idazleen estatuak erai-ki eta ilea erori zitzaigun garaian. Kaiola gehiago iritsi ziren malko gehiago eta

odol gehiagorekin, eta poeta izateko poemak idaztea ez dela nahikoa ikasi genuen. Zahartu ginenean, nobelak irakurri eta idazteari ekin genion. *Beluna Jazz*. Musika asko eta orrialde gutxirekin. Kapitulu laburrak. Pistola bat ezkutatzeke argibideekin, esaterako. Ametseta-ko giro surrealista biltzen genuen orriotan eta eroen irratiko berriak entzuten. Aurreko bizitzan bildumak ziren gure nobelak, amaierak hasieran idazten genitueneko sasoiotan. 1996ko apirila hartan.

garikoitz berasaluze